

HONDARRIBIKO UDALA

Esptea.: 2012ZZZB0010
Erref.: MLI/AEL

IRAGARKIA

EGINBIDEA: Iragarki hau DILIGENCIA: Se extiende para hacer constar que el presente Anuncio ha sido expuesto en el Tablón de Edictos de este Ayuntamiento del al
 2014 MAY: 16
 (e) 2014 JUN: 03
 honetako Ediktu Oholean erakutsia izan dela adierazteko ematen da.
 Hondarribia 2014 JUN: 04
 IDAZKARIA/Secretaria

[Signature]
ANUNCIO

HONDARRIBIKO KOOPERANTEEI EMATEKO ALDAKETAREN ONARPENA

GAZTE LAGUNTZAK OINARRIEN BEHIN BETIKO

APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DE LAS BASES APROBADAS PARA LA CONCESIÓN DE BECAS DESTINADAS A AYUDAS A JÓVENES COOPERANTES DE HONDARRIBIA

Udalbatzak 2014ko otsailaren 27an hasierako onespena eman zien Hondarribiko gazte kooperantei laguntzak emateko beken oinarrien aldaketei, zehazki 2. Aurrekontua eta 4.Eskatzaileak oinarriei.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 27 de febrero de 2014 aprobó inicialmente la modificación de las Bases para la concesión de becas a jóvenes cooperantes de Hondarribia, concretamente las Bases 2ª Presupuesto y 4ª Solicitantes.

Espedientea jendaurrean egon da 30 lanegunez eta iragarkiak 2014ko martxoaren 14ko 50. zkiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal oholtzan argitaratu dira.

El expediente ha sido sometido a información pública por plazo de 30 días hábiles y mediante anuncios publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 50 de 14 de marzo de 2014 y en el Tablón de Anuncios Municipal.

Jendaurreko epea 2014ko apirilaren 23an amaituta, inolako alegaziorik, iradokizunik eta/edo erreklamaziorik aurkeztu gabe, hasierako onspena jaso zuen akordioa behin betikotzat jotzen da.

Finalizado el plazo de información pública el 23 de abril de 2014, sin que se hayan presentado alegaciones, sugerencias y /o reclamaciones, ha quedado elevado a definitivo el acuerdo inicialmente adoptado.

Ondorioz, 2. Aurrekontua eta 4.Eskatzaileak oinarriak, honela idatziak geratuko dira:

En consecuencia, las Bases 2ª Presupuesto y 4ª Solicitantes, quedan redactadas en los siguientes términos:

"2.Aurrekontua

"2. Presupuesto

Beka hauek emateko urtero deialdi publikoa egingo da, eta bertan oinarri hauen xede den programarako baimendutako gastua finkatuko da

Para el otorgamiento de estas becas se realizará anualmente una convocatoria pública en la que se fijará el gasto autorizado para el programa objeto de estas bases.



4. Eskatzaileak.

Programa honetan Hondarribian jaio direnek edo eskaera egin aurreko bost urteetan bertan erroldatuak direnek hartu ahal izango dute parte, baldin eta 18 eta 35 urte bitarte baldin badituzte, eta GGKEren batekin lan harremanik ez badute”.

Aipatutako aldaketaren ondoren, Hondarribiko gazte kooperanteei laguntzak emateko beken oinarriak behin betikoz honela idatziak geratuko dira:

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea hondarribiar gazteengan sensibilizazioa piztea da, hain zuzen ere garapen bidean dauden herrialdeei garatzen laguntzeko, eta aldi berean gazteengan herrialde eta kultura ezberdinen arteko elkartasun kultura sustatzeko. Hartarako, aukeratutako pertsonak zuzenean parte hartuko dute garapenerako borondatezko lankidetzan ekintza batzuen bidez, GGKE bat dela medio, eta bertatik bertara ezagutuko dute gutxienez hilabete betez ekintza horien garapena. Epe luzeagoak ere izan litezke, beti ere eskaeragileak ahal badu eta proiektuan sartuak diren erakundeek egokia ikusten badute.

Udalaren zeregina bakarrik beka ematea da, eta onuradunak izango du bidaia egiteko eta lana garatzeko dagozkion kudeaketak egiteko ardura.

2. Aurrekontua.

Beka hauek emateko urtero deialdi publikoa egingo da, eta bertan oinarri hauen xede den programarako baimendutako gastua finkatuko da

4. Solicitantes.

Podrán participar en este programa aquellas personas jóvenes naturales de Hondarribia o que estén empadronadas en Hondarribia con cinco años de anterioridad a la fecha de presentación de la solicitud, que en esa fecha tuvieran entre 18 y 35 años y que no tengan relación laboral con una ONGD”.

Tras dicha modificación, las Bases para la concesión de becas a jóvenes cooperantes de Hondarribia quedan redactadas definitivamente de la siguiente manera:

1.Objeto.

El objeto de las presentes bases es sensibilizar a la gente joven de Hondarribia en acciones de cooperación al desarrollo en los países en vías de desarrollo y fomentar en la juventud una cultura de solidaridad entre diferentes pueblos y culturas. Para ello, las personas seleccionadas participan directamente en acciones de cooperación al desarrollo en estos países a través de una ONGD, lo que les permite conocer «in situ» durante un periodo mínimo de un mes el desarrollo de dichas acciones. Períodos más largos irán en función tanto de la disponibilidad de la persona solicitante como de lo que consideren conveniente las organizaciones involucradas en el proyecto.

El Ayuntamiento asume únicamente el papel de otorgar la beca y será la persona beneficiaria la responsable de realizar las gestiones oportunas para llevar a cabo el viaje y el desarrollo de la labor.

2. Presupuesto

Para el otorgamiento de estas becas se realizará anualmente una convocatoria pública en la que se fijará el gasto autorizado para el programa objeto de estas bases.



3. Diruz lagunduko diren gastuak.

Diruz lagundu ahal izango dira Gobernu Kanpoko Erakundearekin topatu bitarteko joan-etorriak, baita bisatua nahiz herrialdetik/ra sartu/ateratzeak sortzen dituzten gastuak, ere; era berean istripuetarako eta gaixotasunetarako polizak, ostatu hartze gastuak eta mantenua ere sartuko dira.

Bekaren kopurua egindako egiazko gastuen proportzioan joango da, eta gehienezko kopurua 1.500,00 eurokoa izango da.

4. Eskatzaileak.

Programa honetan Hondarribian jaio direnek edo eskaera egin aurreko bost urteetan bertan erroldatuak direnek hartu ahal izango dute parte, baldin eta 18 eta 35 urte bitarte baldin badituzte, eta GGKEren batekin lan harremanik ez badute.

5. Aukeratzeko irizpideak.

Eskaerak baloratzerakoan ondoko alderdiak hartuko dira kontuan:

- a) Kasu bakoitzera gehien egokitzen den titulazio akademiko/profesionala izatea, edo espezialitate horietan ikasketak egiten ari direla egiaztatzea.
- b) Lan plangintza.
- c) Garapenerako borondatezko lankidetzarekin zerikusia duten ezagutza eta proiektuak.
- d) Gobernu Kanpoko Erakundeetan haien borondatez parte hartu izana.
- e) Gazte elkarteetan edo gizarte helburua duten beste antzekoetan parte hartu izana.
- f) Euskararen ezagutza
- g) Lehenetsuna izango dute aurretik aurkeztutako proiekturako beste erakunde edo elkarteren batek beka eman ez badie.

3. Gastos subvencionables

Se podrán subvencionar los gastos del viaje de ida y vuelta hasta el punto de encuentro con la Organización No Gubernamental en el país de destino, incluidos los derivados, en su caso, del visado y tasas de entrada y/o salida del país de destino, así como de la póliza de accidentes y enfermedad, gastos de alojamiento y mantenimiento.

La cuantía de la beca estará en proporción a los gastos reales efectuados, fijándose como importe máximo en 1.500,00 euros

4. Solicitantes

Podrán participar en este programa aquellas personas jóvenes naturales de Hondarribia o que estén empadronadas en Hondarribia con cinco años de anterioridad a la fecha de presentación de la solicitud, que en esa fecha tuvieran entre 18 y 35 años y que no tengan relación laboral con una ONGD.

5. Criterios de selección.

A la hora de valorar las solicitudes se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

- a) Estar en posesión de la titulación académica y/o profesional que más se adecue a cada caso, o acreditar que se están realizando estudios en dichas especialidades.
- b) El plan de trabajo.
- c) Conocimientos y experiencias relacionadas con la cooperación al desarrollo.
- d) Participación voluntaria en Organizaciones No Gubernamentales.
- e) Participación en asociaciones juveniles u otras de finalidad social.
- f) Conocimiento del euskara.
- g) Tendrán prioridad los jóvenes que no hayan sido beneficiario/a de otra beca o similar por otra institución o asociación para el proyecto presentado.



6. Eskakerak. Dokumentazioa.

- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:*
- Eskabide-orria behar den bezala bete eta sinatua.
 - NANen fotokopia
 - Curriculum vitae: Lan Bizitzari buruzko txostena (Gizarte Segurantzak emana), azaldutako merituen egiaztatzea (bakarrik hartuko dira kontuan zerrendan agiri bidez egiaztatuak ageri diren merituek).
 - GKEaren eta tokiko erakundearen abala (xedeko herrialdekoa), batetik adieraziko duena ados dagoela pertsona horrek GGKEarekin egingo dituen lanekin, eta bestetik azaltzen duena egingo dituen lanen profila.
 - Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu xehea:
 - Bidaia gastuak (hegazkina+bisatua+tasak).
 - Poliza kontratatze gastuak.
 - Beste zenbait gastu: Osasun gastuak, ostatu hartzea eta mantenu gastuak, eta sentsibilizazio jardumaldiko gastuak (argazkiak).
 - Eskaeragilea bankuko kontuaren titularra egiaztatzen duen agiria.

7. Eskabideak aurkezteko epea

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzetarako eskaerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratzen direnetik hilabete beteko epean aurkeztu behar dira.

Eskaerak Gizarte Zerbitzuetako Departamentura bidaliko dira, eta BAZean aurkeztuko dira (Biztanleen Arreta Zerbitzuan): Kale Nagusia, 20, 20280 Hondarribia, edo Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Jardumbideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein baliabidetan.

Udalak egiaztatzen badu eskaeragileak aurkeztutako dokumentazioa aurkeztutako proiektuarekiko osatu gabea dela, egutegiko 10 egun emango ditu gabezia hori konpontzeko, eta epe hori igarota dokumentazioa osatzen ez bada eskaera artxibatu egingo da bestelako tramiterik egin gabe. Era berean, epez kampo aurkeztutako

6. Solicitudes. Documentación.


- Documentación a presentar:*
- Impreso oficial de la solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
 - Fotocopia del D.N.I.
 - Curriculum Vitae: Informe de Vida Laboral (expedido por la Seguridad Social), documentación acreditativa de los méritos alegados (sólo se tomarán en consideración aquellos méritos relacionados en la solicitud acreditados documentalmente).
 - Aval de la ONG y de la organización local (del país de destino) indicando su acuerdo de que dicha persona colabore con las tareas que realiza la ONGD y un plan de trabajo o perfil de las actividades que realizará.
 - Presupuesto detallado de los gastos previstos para llevar a cabo la actividad:
 - Gastos de viaje (avión+visado+tasas).
 - Gastos de la contratación de la póliza.
 - Otros gastos: Gastos sanitarios, gastos de alojamiento y manutención y gastos de la jornada de sensibilización (fotografías).
 - Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la persona solicitante

7. Plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las subvenciones previstas en las presentes Bases deberán presentarse en el plazo de un mes desde la publicación de las presentes bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes se dirigirán al Departamento de Servicios Sociales, presentándolas en el BAZ (Biztanleen Arreta Zerbitzua): Kale Nagusia, 20, 20280 Hondarribia, o en cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Si el Ayuntamiento comprobara que la documentación presentada por quien solicita fuese incompleta o insuficiente respecto al proyecto presentado, concederá al mismo un plazo de 10 días naturales para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se



eskaerak eta horiekin batera doan dokumentazioa berehala artxibatuko dira.

Beka eskaerarekin batera eskaeragileak adieraziko du deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarri hauek erabat onartzen dituela. Era berean, ondokoak azalduko ditu: eskabidean jasotako datu pertsonalak bere oniritziarekin jasoak direla, onartzen duela trataera automatizatua eman diezaietela eta Hondarribiko Udalak baimendutako fitxategietan sar ditzatela, eta onartzen duela datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzea, beste administrazio publikoei edo besteri laga edo jakinarazi ahal izango zaizkielarik abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitakoa gertatzen denean.

8. Proposamena egin eta ebatzea.

Behin eskatutako agiriak aurkeztuta, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak jasotako eskabideei buruzko txosten bat egingo du, eta proposamen bat egingo du, Alkatezara bidaliko dena ebazpena egin dezan.

Egokia baderitzo, Batzordeak elkarriketa egingo die eskaeragileei, aurkeztutako dokumentazioari buruzko informazioa handitzeko.

9. Eskaeragileei jakinarazteko epea.

Alkatezak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie eskaeragileei eskaerak aurkezteko epea bukatu ondorengo 6 hilabeteko epean, gehienez.

10. Beka eskatzeko bete beharreko baldintzak.

Ebazpen berean onuradunei jakinaraziko zaie zein baldintzak bete behar dituzten bekarako aukera izateko:

archivará sin más trámite. También serán archivadas, directamente, las solicitudes presentadas fuera de plazo y la documentación que acompañen a las mismas.

Con la presentación de la solicitud de beca, la persona solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente estas bases. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Hondarribia y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

8. Elaboración y Resolución de propuesta.

Presentada la documentación requerida, la Comisión Informativa de Servicios Sociales elaborará un informe de las solicitudes recibidas y emitirá una propuesta que se elevará a Alcaldía para su resolución.


Caso de estimarlo conveniente, la Comisión podrá realizar una entrevista a las personas candidatas, a fin de ampliar información sobre la documentación presentada.

9. Plazo de notificación a las personas solicitantes.

La resolución adoptada por Alcaldía será debidamente notificada a todas las personas solicitantes en el plazo máximo de 6 meses contados a partir de la fecha de finalización del plazo para la presentación de las solicitudes.

10. Condiciones a cumplir para acceder a la beca.

En la misma resolución, se notificará a los beneficiarios, las condiciones a cumplir para poder acceder a la beca:



- a) *Esleitutako ekintzaren ondoriozko bizi baldintzetara egokitzea.*
- b) *Xedeko herrialdean geratzea hitzartutako data arte, gutxienez hilabete bat bete arte.*
- c) *Istripu eta gaixotasumetarako poliza bat kontratatzea proposatutako egonaldia-erako.*
- d) *Dagozkion osasun gomendioak betetzea.*
- e) *Lana bukatutakoan jarduerari buruz jasotako irudien memoria aurkeztea eta sentsibilizazio jardunaldi bat antolatzea. Memoriak euskaraz eta erdaraz idatzia egon behar du.*
- f) *Xede bererako beste diru-laguntzarik jasoa ez izatea, edo bestela zehaztea zein laguntza jaso dituen.*

- g) *Eskaeragileek Diru-laguntza Orokorrei buruzko 38/2003 Legeko 14. artikulua xedatutako baldintza guztiak bete behar ditu.*
- h) *Bekaren xedea ziren jardura eta helburu guztiak betetzea. Beka eman zion xederako erabiltzea.*
- i) *Indarrean dagoen araudian diru-laguntzen jasotzaileei begira izaera orokorrarekin ezarriak diren betebeharrak guztiak betetzea.*

11. Ordaintzeko era.

Ordainketa bi zatitan egingo da; % 75 beka onartzen direnean eta hegazkin, bisatu, eta aseguru polizaren fotokopia aurkeztean; gainontzeko %25 egiaztagiria aurkeztean eta aurreko artikuluan azaldutako baldintza guztiak betetzen direnean.

12. Bete ez izana

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete ezan eskaera berraztertu edo baztertu daiteke, eta diru-laguntza murriztu edo ken daiteke.

Ondoko kasuetan esan daiteke ez direla oinarriak bete, eta ondorioz beka kendu edo diru-laguntza itzuli egin behar dela, premiamendu bidez:

- a) *Adaptarse a las condiciones de vida derivadas de la acción adjudicada.*
- b) *Permanecer en el país de destino hasta la fecha comprometida, mínimo un mes.*
- c) *Contratar una póliza de accidentes y enfermedad por periodo igual al de la estancia propuesta.*
- d) *Cumplir las recomendaciones sanitarias correspondientes.*
- e) *Presentar, al finalizar la experiencia, la memoria de imágenes recogidas sobre la actividad desempeñada, así como organizar una jornada de sensibilización. La memoria deberá estar redactada en euskera y castellano.*
- f) *No haber recibido ninguna otra subvención para el mismo fin o en su defecto especificar qué ayudas se han recibido.*
- g) *Las personas solicitantes deberán cumplir todas las obligaciones que establece el art. 14 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.*
- h) *Desarrollar la actividad y/u objetivos para los que se ha reconocido la beca. Utilizar la beca para el concreto destino para el que ha sido concedida.*
- i) *Cumplir cuantas obligaciones estén establecidas con carácter general en la normativa vigente para todos los receptores de ayudas o subvenciones.*


11. Procedimiento de pago.

El pago se efectuará en dos partes; Un 75% a la aprobación de las becas y la presentación de la fotocopia del gastos de avión, visado y de la póliza de seguro y el 25% restante tras la presentación de la documentación justificativa y tras el cumplimiento de todas las condiciones expuestas en el artículo anterior

12. Incumplimiento.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se establecen en las presentes Bases supondrá la revisión de la misma y en su caso la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Constituyen motivo de incumplimiento y, por tanto, la retirada de la beca, o en su caso, la devolución de la misma por el procedimiento de apremio, los siguientes supuestos:



- Eskabideko datuak faltsuak badira.
 - Jasotako beka osoa edo zati bat bestelako helburu batzuetarako erabiltzen bada.
 - Beste administrazio edo erakundeek Hondarribiko Udalak diruz lagundutako ekintzak diruz lagundu badituzte.
 - Oinarri hauetako oinarriak edo beka emateko ekintzako oinarriak bete ez izana.
 - Nahitaezkoa den beste edozein oinarri ez betetzea, baldin eta hala ezarria baldin badu izaera orokorrez beste edozein xedapenek.
- Falsedad en los datos de la solicitud.
 - La aplicación total o parcial de la beca percibida para gastos distintos de los previstos en la concesión de beca.
 - Obtener de otras administraciones u organismos subvenciones que financien las acciones subvencionadas por el Ayuntamiento de Hondarribia.
 - Incumplimiento de las obligaciones establecidas en las presentes bases o, en su caso, de las que se establezcan en el acto de concesión.
 - Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.



Hondarribian, 2014ko maiatzaren 8an.
ALKATEA/El Alcalde

Aitor Kerejeta Cid

AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA